

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Zuzentaraua: 223/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko martxoaren 11koa, europar estatistikari buruzkoa eta hauek balio gabetzen dituen: 1101/2008 (EE, Euratom) Erregelamendua, estatistika-sekretuak babestutako informazioak Europako Erkidegoen Estatistika Bulegora helarazteari buruzkoa; Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamendua, erkidego-estatistikari buruzkoa; eta Kontseiluaren 89/382/EEE Erabakia (Euratom), Europako Erkidegoetako estatistika-programarako Komitea sortzekoa.

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO 223/2009 (CE) del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de marzo de 2009, relativo a la estadística europea y por el que se deroga el Reglamento (CE, Euratom) no 1101/2008 relativo a la transmisión a la Oficina Estadística de las Comunidades Europeas de las informaciones amparadas por el secreto estadístico, el Reglamento (CE) no 322/97 del Consejo sobre la estadística comunitaria y la Decisión 89/382/CEE, Euratom del Consejo por la que se crea un Comité del programa estadístico de las Comunidades Europeas» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 87/164, 2009/03/31koa*)»

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

223/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena

2009ko martxoaren 11koa,

europar estatistikari buruzkoa eta hauek baliogabetzen dituen: 1101/2008 (EE, Euratom) Erregelamendua, estatistika-sekretuak babestutako informazioak Europako Erkidegoen Estatistika Bulegora helarazteari buruzkoa; Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamendua, erkidego-estatistikari buruzkoa; eta Kontseiluaren 89/382/EEE Erabakia (Euratom), Europako Erkidegoetako estatistika-programarako Komitea sortzekoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Trataturia eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Banku Zentralaren irizpena aztertu dute [1],

Datuak Babesteko Europar Ikuskatzailearen irizpena aztertu dute [2],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [3],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Tratatuko 285. artikuluko 2. paragrafoan araututako printzipioen arabera egindako europar estatistiken koherentzia eta konparagarritasuna bermatzeko, beharrezkoa da europar estatistikak garatzen, egiten eta zabaltzen diharduten agintarien arteko lankidetzara eta koordinazioa sendotzea.

(2) Horretarako, agintari horien arteko lankidetzara eta koordinazioa orain artekoa baino modu sistematikoagoan garatu behar da, eta botere nazionalak, erkidegokoak eta instituzioen arteko akordioak guztiz errespetatuz antolatu behar da; gainera, kontuan hartu behar da beharrezkoa dela egungo oinarritzko esparru juridikoa aztertzea, egungo errealitatera egokitzekeo, etorkizuneko erronkei hobeto aurre egitekeo eta europar estatistikak hobeto bateratzen direla bermatzeko.

(3) Hortaz, beharrezkoa da Europar Estatistika Sistemaren jarduerak finkatzea (EES) eta haren gobernantza hobetzea, batez ere argi uztekeo zer eginkizun dagokien estatistika-institutu nazionaleri, estatuetakoko beste agintari batzuei eta Erkidegoko estatistika-aginteari.

(4) Estatistika-institutu nazionalen eta estatu kide bakoitzean ardura duten gainerako agintarien bereizgarria denez europar estatistikak garatu, prestatu eta zabaltzea, dirulaguntzak jasotzeko aukera izan behar dute proposamen-deialdirik egin gabe Batzordearen 2342/2002 Erregelamenduko 168. artikuluko 1. paragrafoko d) idatzatziaren arabera; Erregelamendu hori 2002ko abenduaren 23koa da, eta Europako

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikatu dakiokeen finantza-erregelamendua onartzen duen Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom) garatzeko arauari buruzkoa [4].

(5) Estatistika-programaren aplikazioari dagokionez, finantza-zama Europar Batasunaren aurrekontuen eta estatu kideenen artean banatzen dela kontuan hartuta, Erkidegoak, Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamenduari jarraiki —2002ko ekainaren 25ekoa (EE, Euratom), Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikatu dakiokeen finantza-erregelamendua onartzen duena— [5], finantza-ekarpena egin behar die, halaber, estatistika-institutu nazionalak eta beste agintari nazionalak, Batzordeak erabakitako aldi baterako estatistika-neurri zuzenak hartzean estatistika-institutu nazional horiek eta beste agintari nazionalak izan ditzaketen gehikuntzazko kostuak osorik estaltzeko.

(6) Lotura estua izan behar dute indartutako lankidetzak eta koordinazioarekin bai Merkataritza Askearen Europako Elkarteko estatu kideetako estatistika-agintariak (parte baitira Europako Ekonomia Esparruari buruzko Akordioan) [6] bai Suitzak, hala aurreikusten baitute, hurrenez hurren, Europako Ekonomia Esparruari buruzko Akordioak (berezi, hartako 76. artikulua eta 30 a) protokoloak) eta Europako Erkidegoaren eta Suitzar Konfederazioaren artean estatistika-esparruko lankidetzari buruz lortutako Akordioak [7] (berezi, hartako 2. artikulua).

(7) Gainera, garrantzitsua da bermatzea lankidetzak estua eta koordinazio egokia izango direla EESren eta Europako Banku Zentralen Sistemaren artean (EBZS), batez ere bi sistemen artean datu konfidentzialen trukea sustatzeko helburu estatistikoekin, kontuan hartuta bai Tratatuaren 285. artikulua, bai 18 zk.ko protokoloaren 5. artikulua, Europako Banku Zentralen Sistemaren eta Banku Zentralaren Estatutuei buruzkoa, Tratatuari erantsia.

(8) Hortaz, EESk eta EBZSk europar estatistikak garatu, prestatu eta zabaldu behar dituzte, baina beren esparru juridiko independenteen arabera, bakoitzaren gobernantza-egituren adierazgarri baitira. Erregelamendu hau aplikatzeak, beraz, ez du baztertzeko Kontseiluaren 2533/98 (EE) Erregelamendua, 1998ko azaroaren 23koa, Europako Banku Zentralak informazio estatistikoa lortzeari buruzkoa [8].

(9) Horrenbestez, nahiz eta EBZSko kideek ez parte hartu Erregelamendu honen araberrako europar estatistikak egiten, banku zentral nazional bat eta Erkidegoko estatistika-agintea ados jarri ondoren, zein bere eskumeneko esparruetan eta alde batera utzi gabe banku zentral nazionalen eta estatistika-institutu nazionalen edo beste agintari nazionalen arteko akordio nazionalak, estatistika-institutu nazionalak, beste agintari nazionalak eta Erkidegoko estatistika-agintariak zuzenean edo zeharka erabil ditzakete banku zentral nazionalak aurkeztutako datuak europar estatistikak egiteko. Era berean, EBZSko kideek, zeinek bere eskumen-esparruan, zuzenean edo zeharka erabil ditzakete EESren datuak, betiere erabilera horren beharra justifikatuz gero.

(10) EESren eta EBZSren arteko harremanetan, eginkizun garrantzitsua betetzen du diru-, finantza- eta ordaintzen balantza-estatistiketarako Komiteak (Kontseiluaren 2006/856/EE Erabakiak sortua) [9], batez ere Batzordeak diru-, finantza- eta ordaintzen balantza-estatistikei buruzko lan-programak garatu eta aplikatzeko emandako laguntzari esker.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(11) Nazioarteko gomendioak eta jardunbide onenak kontuan hartu behar dira europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzean.

(12) Garrantzitsua da lankidetzaren estua eta koordinazio egokia bermatzea EESren eta nazioarteko estatistika-sistemaren beste elementuen artean, nazioarteko kontzeptu, sailkapen eta metodoen erabilera sustatzeko, mundu-mailako estatistiken artean koherentzia handiagoa eta konparagarritasun hobea izatea bermatzeari begira bereziki.

(13) Estatistiketan kontzeptuak eta metodologiak bateratzeko, diziplinarteko lankidetzaren egokia garatu behar da erakunde akademikoekin.

(14) Era berean, EESren funtzionamendua aztertu behar da, metodo malguagoak behar baitira europar estatistikak garatu, prestatu eta zabaltzeko, eta lehentasun argiak zehaztu behar baitira inkestatuen eta EESko kideen artean erantzun-karga gutxitzeko eta estatistika horien eskuragarritasuna eta gaurkotasuna hobetzeko. Horretarako, estatistiken gaineko europar planteamendua sortu behar da.

(15) Europar estatistikak estatu kideetako estatistika-agente nazionalak landu eta zabaldutako datu nazionaletan daude oinarrituta jeneralean, baina, besteak beste, honako hauek abiapuntutzat hartuta ere egin daitezke: argitaratu gabeko ekarpen nazionalak; ekarpen nazionalen azpimultzoak; horretarako asmatutako europar inkesta estatistikoak; eta kontzeptu nahiz metodo bateratuak.

(16) Kasu espezifiko eta behar bezala justifikatuetan, estatistiken europar planteamendua aplikatzeko aukera izan behar da, eta horretarako estrategia pragmatiko bat baliatu behar da, Europar Batasuna edo euroaren eremua osotasun moduan adierazten duten eta erkidego-politiketarako garrantzitsuagoak diren europar agregatu estatistikoen bilduma errazago egiteko.

(17) Estatistika-institutu nazionalak edo beste agente nazional batzuk eta Erkidegoko estatistika-agintea biltzen dituzten eta, era berean, estatu kide batzuk EES osoaren mesederako estatistika-jarduera zehatzetan espezializatzea errazten duten lankidetzaren bidez ere sortu edo gehiago gara daitezke baterako egitura, tresna eta prozesuak. EESko kideen arteko lankidetzaren sare horiek helburutzat izan behar dute lana ez bikoiztea, horrek eraginkortasuna handitu eta erantzun-karga murriztu egingo baitie eragile ekonomikoari.

(18) Horretarako, arreta berezia jarri behar da hainbat inkestatan bildutako datuen azterketa koherentean. Diziplinarteko lantaldeak sortu behar dira xede hori lortzeko.

(19) Europar estatistiketarako erregelamendu-ingurune onenak batez ere inkestatuen erantzun-karga gutxienera murrizteko beharrari erantzun behar dio, eta administrazio-kargak Europako mailan gutxitzeko helburu orokorragoa lortzen lagundu behar du, Europako Kontseiluko Presidentetzak 2007ko martxoaren 8an eta 9an ateratako ondorioen arabera. Hala ere, azpimarratu behar da, halaber, estatistika-institutu nazionalak eta beste agente nazionalak eginkizun garrantzitsua bete dutela estatu-mailan europar enpresen kargak murriztean.

(20) Europar estatistikekiko konfiantza areagotzeko, estatu kide bakoitzeko estatistika-agintari nazionalak eta, Batzordearen barruan, Erkidegoko estatistika-agintak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

independentzia profesionala izan behar dute, eta beren inpartzialtasuna nahiz egiten dituzten europar estatistiken kalitate handia bermatu, kontuan hartuta Tratatuako 285. artikuluko 2. paragrafoan araututako printzipioak eta europar estatistiketako jardunbide onen Kodean geroago landutako printzipioak; kode hori Batzordeak onartu zuen, 2005eko maiatzaren 25ean, estatu kideetako eta Erkidegoko estatistika-agintarien independentzia, osotasun eta erantzukizunari buruzko Gomendioaren bidez (europar estatistiketako jardunbide onen Kodea jasotzen du eta). Kontuan hartu behar dira, halaber, estatistika ofizialaren funtsezko printzipioak: 1992ko apirilaren 15ean, Nazio Batuetako Europarako Ekonomia Batzordeak eta, 1994ko apirilaren 14an, Nazio Batuetako Estatistika Sailak onartu zituzten printzipio horiek.

(21) Erregelamendu honek bizitza pribatuaren eta familia-bizitzaren errespetua eta datu pertsonalen babesa bermatzen ditu, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 7. eta 8. artikuluen arabera [10].

(22) Erregelamendu honek, halaber, pertsonen babesa bermatzen du datu pertsonalen tratamenduari dagokionez eta, europar estatistikez den bezainbatean, zehaztu egiten ditu 95/46/EE Zuzentarauan (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1995eko urriaren 24koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez) bildutako arauak [11], bai eta 45/2001 (EE) Erregelamenduan bildutakoak ere (erregelamendu hori Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena da, 2000ko abenduaren 18koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, Erkidegoko instituzioek eta organismoek datu pertsonalei ematen dieten tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez) [12].

(23) Estatu etako eta Erkidegoko estatistika-agintariek europar estatistikak egiteko jasotako informazio konfidentzialak babestuta egon behar du, informazio hori emateko ardura dutenen konfiantza lortu eta mantentzeko. Datuen konfidentzialtasunak printzipio berak bete behar ditu estatu kide guztietan.

(24) Horretarako, printzipio eta orientazio komunak ezarri behar dira, europar estatistikak egiteko erabilitako datuen konfidentzialtasuna eta datu konfidentzial horietarako sarbidea bermatzeko, kontuan hartuta bai aurrerapen teknikoak, bai erabiltzaileek gizarte demokratikoan dituzten beharrak.

(25) EESren beharretarako datu konfidentzialak izatea garrantzi handikoa da datuen onurak ahalik eta handienak izan daitezen, europar estatistiken kalitatea areagotu eta Erkidegoari berriki sortuz joan zaizkion estatistika-beharrei erantzun malgua ematen zaiela bermatzeko.

(26) Ikertzaileek aukera zabala izan behar dute europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko erabilitako datu konfidentzialetara iristeko, bai eta haiek aztertzeko ere Europako zientzia-aurrerapenaren mesedetan. Zientzia-helburuak kontuan hartuta ere hobetu behar da datu konfidentzialetarako sarbidea, inola era ahaztu gabe datu horiek babes-maila handia behar dutela.

(27) Guztiz debekatu behar da datu konfidentzialak estatistiko hutsak ez diren helburuekin erabiltzea; besteak beste, administrazio- eta zerga-ondorioetarako, estatistika-unitateak kontrolatzeko edo ondorio juridikoak izateko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(28) Erregelamendu hau aplikatu beharrekoa da inola ere baztertu gabe ez 2003/4/EE Zuzentaraua (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2003ko urtarrilaren 28koa, jendeak ingurumen-informaziora sarbidea izateari buruzkoa) [13], ez 1367/2006 (EE) Erregelamendua (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko irailaren 6koa, Århusko hitzarmenean informazioa eskuratzeari, jendeak erabakiak hartzen esku-hartze izateaz eta ingurumen-esparruan justizia baliatzeaz xedatuta daudenak Erkidegoko institutu eta erakundeetan aplikatzeari buruzkoa) [14].

(29) Estatu kideak ez dira gai erregelamendu honen helburua (esparru juridiko bat sortzea europar estatistikak garatu, prestatu eta zabaltzeko) behar bezala lortzeko eta, beraz, hobeto lor daiteke erkidego-mailan. Horregatik, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan zehaztutako subsidiarioratasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan bertan adierazten den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, helburu hori lortzeko behar dena arautzera mugatzen da Erregelamendu hau eta, beraz, horrek ez ditu baztertzen estatistika nazionalek berezko dituzten modalitate, arau eta baldintza nazionalak.

(30) Erregelamendu hau betetzeko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki [15].

(31) Komeni da, bereziki, eskumenak ematea Batzordeari, neurriak har ditzan europar estatistiken kalitate-irizpideei buruz eta Erkidego-mailako datu konfidentzialetara zientzia-helburuekin sartzeko modalitateak, arauak eta baldintzak erabaki ditzan. Neurri horiek orokorrak eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osa daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

(32) Erregelamendu honetan jasotako neurriek honako hauetan jasotakoak ordeztzen dituzte: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1101/2008/EE (Euratom) Erregelamendukoak [16]; Kontseiluaren 322/97/EE Erregelamendukoak [17]; eta Kontseiluaren 89/382/EEE (Euratom) Erabakikoak [18]. Hortaz, egintza horiek indargabetu egin behar dira. Honako hauetan jasotako aplikazio-arauak baliatzen jarraitu behar da: Batzordearen 831/2002 (EE) Erregelamenduan jasotakoak —2002ko maiatzaren 17koa, Kontseiluak, datu konfidentzialetara zientzia-helburuekin sarbidea izateari dagokionez, Erkidegoko estatistikaz onartutako 322/97 (EE) Erregelamendua aplikatzen duena— [19]; eta Batzordearen 2004/452/EE Erabakian jasotakoak —2004ko apirilaren 29koa, datu konfidentzialetara zientzia-helburuekin sar daitezkeen ikertzaileak dituzten erakundeen zerrenda finkatzen duena— [20].

(33) Kontsulta egin zaio estatistika-programarako Komiteari.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Helburua eta aplikazio-eremua

Erregelamendu honek europar estatistikak garatu, prestatu eta zabaltzeko esparru juridikoa arautzen du.

Subsidiariorotasun-printzipioari jarraiki, eta estatuetakoa nahiz Erkidegoko agintarien independentzia, osotasun eta erantzukizunarekin bat etorrita, europar estatistikak beharrezkoak eta egokiak dira Erkidegoaren jarduerak gauzatzeko. Europar estatistika-programan europar-estatistikak zehaztuko dira. Tratatuako 285. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako estatistika-printzipioei jarraiki garatu, prestatu eta zabalduko dira, eta europar estatistiketako jardunbide egokien Kodean garatzen jarraituko dira, 11. artikulua araberako. Erregelamendu honen arabera aplikatuko dira.

2. artikulua

Estatistika-printzipioak

1. Europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzean, estatistika-printzipio hauei jarraituko zaie:

a) “independentzia profesionala”: estatistikek garapen, prestaketa eta zabaltze independentea izan behar dute, batez ere tekniken aukeraketari, definizioei, metodologiei eta erabili beharreko iturriei dagokienez, bai eta egutegiari eta, zabaltzeko era edozein izanda ere, edukiari dagokienez ere, talde politikoaren, interes-taldearen edo Erkidegoko nahiz estatuetakoa agintarien presio orotatik libre egon behar baitute, inola ere baztertu gabe baldintza instituzionalak, nola baitira Erkidegoko edo estatuetakoa erakunde- edo aurrekontu-xedapenak eta estatistika-beharren definizioa;

b) “inpartzialtasuna”: estatistikek garapen, prestaketa eta zabaltze neutrala izan behar dute, eta tratu bera eman behar diete erabiltzaile guztiei;

c) “objektibotasuna”: estatistikek garapen, prestaketa eta zabaltze sistematikoa, fidagarria eta inpartziala izan behar dute, eta horrek berekin dakar arau profesional eta etikoetara jotzea, eta baliatutako politikak eta jardunbideak gardenak izatea erabiltzaileentzat eta inkestatuentzat;

d) “fidagarritasuna”: estatistikek xede duten errealitatea ahalik eta leialen, zehatzen eta modu koherenteenean agertu behar dute, eta horren ondorioa da zientzia-irizpideak erabiltzea iturriak, metodoak eta prozedurak hautatzean;

e) “estatistika-sekretua”: bana-banako estatistika-unitateei dagozkien eta zuzenean estatistika-helburuekin edo zeharka administrazio-iturrietatik edo beste batzuetatik lortzen diren datu konfidentzialen babesa; babes horrek berekin dakar debekatuta egotea lortutako datuak estatistikoak ez diren helburuekin erabiltzea eta legez kontra jakinaraztea;

f) “errentagarritasuna”: estatistikak egitearen kostuek emaitzen garrantziaren eta bilatutako etekinen neurrikoak izan behar dute, baliabideak ondo erabili behar dira eta erantzun-karga murriztu egin behar da; ahal den neurrian, bilatzen den informazioa erraz atera ahal izango da eskura dauden agiri edo iturrietatik.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Paragrafo honetan azaldutako estatistika-printzipioak jardunbide onen Kodean landuko dira geroago 11. artikuluaaren arabera.

2. Europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzean, nazioarteko gomendio eta jardunbide onenak kontuan hartu beharko dira.

3. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

1) "estatistikak": populazio jakin batean, fenomeno kolektibo baten ezaugarria den informazio kuantitatibo, kualitatibo, agregatu eta adierazgarria;

2) "garapena": estatistikak egin eta zabaltzeko erabiltzen diren metodo, arau eta prozedura estatistikoak sortzea, finkatzea eta hobetzea helburu duten jarduerak, bai eta estatistika berriak eta adierazleak diseinatzeako helburua dutenak ere;

3) "egitea": estatistiken bilduma egiteko beharrezkoak diren bilketa, biltegitratze, tratamendu eta azterketarekin erlazionatutako jarduera guztiak;

4) "zabalkundea": estatistikak eta haien azterketa erabiltzaileen eskura jartzea;

5) "datuen bilketa": inkestak eta informazioa hainbat iturritatik (administrazio-iturriak barne) lortzeko beste metodo batzuk;

6) "estatistika-unitatea": oinarrizko behaketa-unitatea; hau da: pertsona fisikoa, familia, enpresa edo datuak dagozkion beste edozein eragile-mota;

7) "datu konfidentziala": estatistika-unitateak zuzenean edo zeharka identifikatzeko eta, beraz, partikularrei buruzko informazioa zabaltzeko aukera ematen duen datua; estatistika-unitate bat identifikagarria den erabakitzeko, kontuan hartu beharko dira hirugarren batek estatistika-unitatea identifikatzeko zentzuz erabil litzakeen bitarteko egoki guztiak;

8) "erabilera estatistika-helburuekin": emaitza eta azterketa estatistikoak garatzeko eta egiteko erabilera eskusiboa;

9) "zuzeneko identifikazioa": estatistika-unitate bat izen-abizenen, helbidearen edo edonork jakin dezakeen identifikazio-zenbaki baten bidez identifikatzea;

10) "zeharkako identifikazioa": estatistika-unitate bat zuzeneko identifikazioan erabiltzen ez diren bitartekoekin identifikatzea;

11) "Batzordeko funtzionarioak (Eurostat)": Erkidegoetako funtzionarioak, Europako Erkidegoetako funtzionarioen Estatutuko 1. artikuluan ematen zaien adieran, Erkidegoko estatistika-agintean lan egiten dutenak;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

12) "Batzordeko bestelako langileak (Eurostat)": Erkidegoetako agenteak, Europako Erkidegoetako beste agente batzuei aplikatu dakiekeen Araubideko 2. artikulutik 5. artikulura bitartekoetan ematen zaien adieran, Erkidegoko estatistika-agintean lan egiten dutenak.

II. KAPITULUA

GOBERNANTZA ESTATISTIKOA

4. artikulua

Europako Estatistika Sistema

Europako Estatistika Sistema (EES) honako hauek elkartzearen emaitza da: Erkidegoko estatistika-agintea, hau da Batzordea (Eurostat); estatistika-institutu nazionalak (EIN); eta estatu kide bakoitzean europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko ardura duten beste agintari nazional batzuk.

5. artikulua

Estatistika-institutu nazionalak eta beste agintari nazional batzuk

1. Estatu kide bakoitzak estatistika-aginte nazional bat aukeratuko du, erakunde horrek bere gain har dezan europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko jarduera guztiak estatuan koordinatzeko ardura (EINak), eta Batzordearekiko (Eurostatekiko) mintzaidea izan dadin estatistika-kontuez aritzean. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte erabaki honen aplikazioa ziurtatzeko.

2. Batzordeak (Eurostat) EINen zerrenda izango eta argitaratuko du bere webgunean, bai eta estatu kideek europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeaz ardura daitezen aukeratutako beste agintari nazionalena ere.

3. EINek eta artikulua honetako 2. paragrafoan aipatutako zerrendako beste aginte nazionalak diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte inolako proposamen-deialdirik izan gabe, 2342/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko 168. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatiaren arabera.

6. artikulua

Batzordea (Eurostat)

1. Batzordeak Erkidegoko estatistika-agintea hautatzen du europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko; Erregelamendu honen ondorioetarako, "Batzordea (Eurostat)" deritza erakunde horri.

2. Erkidego-mailan, Batzordeak (Eurostat) europar estatistikak bai erabakitako araei bai estatistika-printzipioei jarraiki egiten direla bermatuko du. Horri dagokionez, haren ardura eta ez beste inorena izango da erabakiak hartzea estatistika-prozesuei, -metodoei, -arauei eta -prozedurei buruz, bai eta estatistika-argitalpenen edukiari eta egutegiari buruz ere.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Europako Banku Zentralen Sistemaren (EBZSren) eta Europako Banku Zentralaren Estatutuei buruzko Protokoloko 5. artikulua baztertu gabe, Batzordeak (Eurostat) Erkidegoko instituzio eta erakundeen estatistika-jarduerak koordinatuko ditu, batez ere datuen koherentzia eta kalitatea ziurtatu eta erantzun-karga gutxitzeko. Horretarako, Batzordeak (Eurostat) berari kontsulta egiteko eskatu ahal izango dio Erkidegoko edozein instituzio edo erakunderi, hala nola berarekin lankidetzan aritzeko estatistika-helburuak dituzten metodoak eta sistemak garatzeko bakoitzaren eskumenari lotutako kontuetan. Estatistikak egitea proposatzen duen edozein instituziok edo erakundek kontsulta egingo dio Batzordeari (Eurostat) eta kontuan hartuko du hark gaiaz ematen dion edozein aholku.

7. artikulua

Europako Estatistika Sistemaren Komitea

1. Europako Estatistika Sistemako Komitea sortzen da (“EESko Komitea”). Lanbide-orientazioa emango du europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko 2. artikuluko 1. paragrafoan araututako estatistika-printzipioen arabera.

2. EESko Komitea estatistikaren esparruan aditu nazional diren EINetako ordezkariak osatuko dute. Batzordea (Eurostat) izango da Komiteko burua.

3. EESko Komiteak barne-araudia onartuko du; araudian haren zereginak adieraziko dira.

4. Hurrengo hauek direla eta Batzordeak kontsulta egingo dio EESko Komiteari:

a) europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko hartu asmo dituen neurriak, haien justifikazioa helburuak lortzeko bitartekoak, egutegiak eta errentagarritasuna kontuan hartuta eta inkestatuen erantzun-karga;

b) europar estatistika-programan proposatutako joerak eta lehentasunak;

c) lehentasunak berriz esleitzeko eta erantzun-karga murrizteko ekimenak;

d) estatistika-sekretuari lotutako gaiak;

e) jardunbide onen Kodearen geroko garapena, eta

f) beste edozein gai, batez ere metodologia-esparrukoa, presidentetzak, dela bere ekimenez, dela estatu kide batek eskatuta, proposatutako estatistika-programak eratu edo aplikatzean sortuz gero.

8. artikulua

Beste erakunde batzuekiko lankidetzak

Kontsulta egingo zaie Europako Estatistika Komite Aholku-emaileari eta Europako estatistika-gobernantzaren Komite aholku-emaileari, bakoitzaren eskumenaren muga barruan.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

9. artikulua

EBZSrekiko lankidetza

Bai erantzun-karga ahalik eta gehien gutxitzeko bai europar estatistikak egiteko beharrezko koherentzia bermatzeko, EES eta EBZS lankidetza estuan ariko dira eta 2. artikuluko 1. paragrafoan araututako estatistika-printzipioei egokituko zaizkie.

10. artikulua

Nazioarteko lankidetza

Estatu kide bakoitzaren jarrera eta funtzioa baztertu gabe, Batzordeak (Eurostat) EESren jarrera (EESko Komiteak prestatua) koordinatuko du nazioarte-mailan europar estatistikentzat garrantzi berezia duten gaitan, eta gauza bera egingo du nazioarteko estatistika-erakundeetan ordezkatzeko akordio espezifikoez den bezainbatean.

11. artikulua

Europar estatistiken jardunbide onen Kodea

1. Jardunbide onen Kodeak xedetzat izango du jendearen artean europar estatistikekiko konfiantza bermatzea eta, horretarako, erabaki egin beharko du nola garatu, egin eta zabaldu behar diren europar estatistikak 2. artikuluko 1. paragrafoan araututako estatistika-printzipioen eta nazioarteko jardunbide onenen arabera.

2. Jardunbide onen Kodea EESko Komiteak berraztertu eta eguneratuko du beharrezkotzat jotzen duenean. Batzordeak hari egindako zuzenketak argitaratuko ditu.

12. artikulua

Estatistika-kalitatea

1. Emaitzen kalitatea bermatzeko, europar estatistikak arau uniformeetan eta metodo bateratuen arabera garatu, egin eta zabalduko dira. Horri dagokionez, kalitate-irizpide hauek erabiliko dira:

a) "egokitasuna": estatistikek zer neurritan erantzuten dieten erabiltzaileek dituzten eta izan litzaketen beharrei;

b) "zehaztasuna": estimazioak eta jakinak ez diren benetako balioak bat etortzea;

c) "gaurkotasuna": deskribatutako egintza edo fenomenoak gertatu zenetik informazioa eskuragarria izan arte igarotako epea;

d) "puntueltasuna": zer epe igaro den xede zen datatik (datuak aurkeztu behar ziren egunetik) datuak argitaratu arte;

e) "irisgarritasuna" eta "argitasuna": erabiltzaileek zer baldintza eta modutan lor, erabil eta interpreta ditzaketen datuak;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

f) "konparagarritasuna": zenbait eremu geografikotako, sektore-esparrutako edo denboran zeharreko estatistikak alderatzean, haietan erabiliko estatistika-kontzeptuetan eta neurketa-tresna nahiz -prozeduretan izandako desberdintasunen eraginaren neurketa;

g) "koherentzia": datuak egokitzea, fidagarritasunez nahas daitezten hainbat eratan eta hainbat erabileratarako.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan araututako kalitate-irizpideak sektore-legediak estatistika-esparru espezifikoetan jasotako datuei aplikatzeko, Batzordeak zehaztu egingo ditu sektore-legedian aurreikusitako kalitate-txostenen modalitateak, egitura eta aldizkakotasuna, 27. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako arautze-prozedurari jarraiki.

Sektore-legediak kalitate-baldintza espezifikoak arautu ahal izango ditu, hala nola estatistikak egiteko xede-balioak eta gutxieneko arauak. Batzordeak neurriak hartu ahal izango ditu sektore-legediak ez baditu arautzen. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 27. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

3. Estatu kideek transmititutako datuen kalitateari buruzko txostenak helaraziko dizkiote Batzordeari (Eurostat). Batzordeak (Eurostat) transmititutako datuen kalitatea ebaluatuko du eta europar estatistiken kalitateari buruzko txostenak prestatu eta argitaratuko ditu.

III. KAPITULUA

EUROPAR ESTATISTIKAK EGITEA

13. artikulua

Europar estatistika-programa

1. Europar estatistika-programak europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko esparrua, eremu nagusiak eta bost urtetik gorakoa izango ez den epe batean aurreikusitako neurrien helburuak emango ditu. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erabakiko dute. Daukan eragina eta errentagarritasuna ebaluatuko dira aditu independenteen parte-hartzearekin.

2. Europar estatistika-programak lehentasunak erabakiko ditu Erkidegoaren jarduerak egiteko informazio-beharrei dagokienez. Behar horiek aztertzeko, kontuan hartuko dira beharrezko estatistikak egiteko Erkidego- eta estatu-mailan eskatzen diren baldintzak eta inkestaren erantzun-karga eta lotutako kostuak.

3. Batzordeak ekimenak izango ditu europar estatistika-programan, haren osotasunean edo zati batean, lehentasunak erabaki eta erantzun-karga murriztu ahal izateko.

4. Batzordeak europar estatistika-programaren proiektua aurkeztuko dio EESko Komiteari, aurretiazko azterketa egin dezan.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. Batzordeak, europar estatistika-programa bakoitzeko, eta EESko Komitearekin kontsultatu ondoren, tarteko ebaluazio-txosten bat eta amaierako beste bat aurkeztuko ditu, eta Europako Parlamentura eta Kontseilura helaraziko.

14. artikulua

Europar estatistika-programa gauzatzea

1. Europar estatistika-programa honako hauek erabakitako estatistika-neurri berezien bidez gauzatuko da:

- a) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak;
- b) Batzordeak, kasu berezi eta behar bezala justifikatu batzuetan, partikulariki ustekabeko beharrei erantzuteko, 2. paragrafoko xedapenei jarraiki, edo
- c) EINak edo beste agintari nazional batzuk eta Batzordea (Eurostat) ados jarrita, zein bere eskumeneko esparruetan. Akordio horiek idatziz egin beharko dira.

2. Batzordeak aldi baterako zuzeneko estatistika-neurri bat erabaki ahal izango du 27. artikuluko 2. paragrafoan jasotako arautze-prozeduraren arabera, betiere:

- a) neurrian ez bada jasotzen erreferentziazko hiru urteetarako baino denbora gehiagorako datu-bilketarik;
- b) datuak EINen eta beste agintari nazional eskudun batzuen eskura badaude, edo aipatu horiek datuetara iristea badute, edo datuak zuzenean lor badaitezke lagin egokietara jota, estatistika-populazioari Europa-mailatik erreparatzeko, EINekiko eta beste agintari nazionalekiko koordinazio egokiarekin, eta
- c) Erkidegoak, 1605/2002 Erregelamenduaren arabera (EE, Euratom), finantza-ekarpena egin beharko die EINEi eta beste agintari nazionalei izan dituzten gehikuntzazko kostuak estaltzeko.

3. Bestalde, 1. paragrafoko a) edo b) idatz-zatien arabera hartu behar den neurri bat betetzeko, Batzordeak informazio hau emango du:

- a) zer arrazoik justifikatzen duten neurria, bereziki kasuan kasuko erkidego-politikaren helburuen ikuspuntutik;
- b) zein diren neurriaren helburuak eta zer emaitza espero diren;
- c) errentagarritasunaren azterketa, inkestatuei dagokien erantzun-kargaren eta ekoizpen-kostuen ebaluazioa barne, eta
- d) nola beteko den neurria, haren iraupena eta Batzordearen nahiz estatu kideen eginkizuna barne.

15. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Lankidetzaren sarrerak

Estatistika-neurri bereziek, ahal denean, sinergiak garatuko dituzte EESn lankidetzaren bidez, esperientzia eta emaitzak zabaltzeko, edo zeregin espezifikoetan espezializatzea sustatzeko. Horretarako, finantza-egitura egokia garatuko da.

Neurri horien emaitza (egitura, tresna, prozesu eta metodo bateratuena) eskura egongo da EES osoan. EESko Komiteak lankidetzaren sarrerak sortzeko ekimenak eta emaitzak aztertuko ditu.

16. artikulua

Estatistiken europar planteamendua

1. Kasu berezi eta behar bezala justifikatuetan eta europar estatistika-programaren esparruaren barruan, estatistiken europar planteamenduak xede hauek ditu:

a) ahalik eta gehien areagotzea Europa-mailako estatistika-agregatuaren eskuragarritasuna eta europar estatistiken gaurkotasuna hobetzea;

b) inkestatuen, EINen eta beste agintari nazionalen karga gutxitzea errentagarritasun-azterketa egin ondoren.

2. Estatistiken europar planteamendua egokia da kasu hauetan:

a) europar estatistikak garatzean hauek erabiliz:

i) argitaratu gabeko ekarpen nazionalak, edo estatu kide batzuen azpimultzoaren ekarpen nazionalak,

ii) berariaz prestatutako inkesta-sistemak,

iii) informazio partziala modelizazio-tekniken bidez;

b) estatistika-agregatuak Europa-mailan zabaltzean estatistikak jakinaraztea kontrolatzeko teknika espezifikoak aplikatuz, horiek inola ere tratatu gabe zabalkundeari buruzko xedapen nazionalak.

3. Estatistiken europar planteamendua gauzatzeko neurriak estatu kideek parte-hartze osoa izanik beteko dira. Neurri horiek 14. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako estatistika-neurri berezietan xedatuko dira.

4. Beharrezkoa izanez gero, argitalpen- eta berrikuspen-politika koordinatua erabakiko da estatu kideekiko lankidetzan.

17. artikulua

Urteko lan-programa

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Urtero, maiatza amaitu baino lehen, Batzordeak hurrengo urterako lan-programa aurkeztuko dio EESko Komiteari. Batzordeak oso kontuan hartuko ditu EESko Komitearen ohartarazpenak. Lan-programa hori europar estatistika-programan oinarrituko da eta, zehazki, hauek beharko dira:

- a) Batzordeak lehentasunezko zat jotako neurriak, kontuan hartuta erkidego-politikaren beharrak eta Erkidegoko nahiz estatuetakoko finantza-mugak, hala nola erantzun-karga;
- b) lehentasunak berriz esleitzeko eta erantzun-karga murrizteko ekimenak, eta
- c) Batzordeak programa betetzeko aurreikusten dituen prozedura eta tresna juridikoak.

IV. KAPITULUA

EUROPAR ESTATISTIKEN ZABALKUNDEA

18. artikulua

Zabaltzeko neurriak

1. Europar estatistikak zabaltzean, guztiz beteko dira 2. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren estatistika-printzipioak, batez ere estatistika-sekretua gordetzeari eta sarbide-berdintasuna inpartzialtasun-printzipioaren arabera bermatzeari dagokienez.
2. Batzordea (Eurostat), EINak eta beste agintari nazionalak arduratuko dira, zein bere eskumen-esparruaren barruan, europar estatistikak zabaltzeaz.
3. Estatu kideek eta Batzordeak, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, beharrezko laguntza emango dute erabiltzaile guztiek europar estatistiketara sarbide berdina izatea bermatzeko.

19. artikulua

Erabilera publikoko fitxategiak

Bana-banako estatistika-unitateei buruzko datuak erabilera publikoko fitxategi moduan zabaltzeko ahal izango dira, baina estatistika-unitatea zuzenean edo zeharka identifikatzerik ez dagoen moduan prestatutako erregistro anonimoetan, horretarako kontuan hartuta hirugarren batek zentzuz erabil ditzakeen bitarteko egoki guztiak.

Datuak Batzordeari (Eurostat) helarazi bazaizkio, datuak eman zituen EINaren edo beste agintari nazionalaren berriazko onespina beharko da.

V. KAPITULUA

ESTATISTIKA-SEKRETUA

20. artikulua

Datu konfidentzialen babesa

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Datu konfidentzialak soil-soilik estatistika helburuekin erabiltzen direla eta ez direla legez kontra jakinarazten bermatzeko erabiliko dira ondoko arauak eta neurriak.

2. EINek, beste agintari nazionalak eta Batzordeak (Eurostat) europar estatistikak egiteko eta ez beste ezertarako lortutako datu konfidentzialak estatistika-helburuekin baino ez dituzte erabili ahal izango, estatistika-unitateek inolako zalantzarik gabe baimena eman ezean beste xede batzuetarako erabiltzeko.

3. Ohiz kanpoko hurrengo kasuetan, EINek, beste agintari nazionalak eta Batzordeak (Eurostat) estatistika-unitate bat identifikatzeko bidea eman dezaketen estatistika-emaitzak zabaldu ahal izango dituzte:

a) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Tratatuko 251. artikulua erabakitako egintza baten bidez baldintza eta modalitate espezifikoak zehaztu badira eta estatistika-emaitzak zabaldu badira haiek zabaltzeko estatistika-sekretuari kalterik egin gabe, betiere estatistika-unitateak hala eskatuz gero, edo

b) estatistika-unitateak zalantzarik gabe adierazi badu bat datorrela datuak zabaltzarekin.

4. EINek, beste agintari nazionalak eta Batzordeak (Eurostat), zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, beharrezko arau-, administrazio-, teknika- eta antolaketa-neurri guztiak hartuko dituzte datu konfidentzialen babes fisikoa eta logikoa bermatzeko (estatistikak jakinaraztearen kontrola).

EINek, beste agintari nazionalak eta Batzordeak (Eurostat) beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte printzipioak eta jarraibideak bateratzen direla bermatzeko, datu konfidentzialen babes fisiko eta logikoari dagokionez. Batzordeak 27. artikuluko 2. paragrafoan jasota dagoen arautze-prozedurari jarraiki hartuko ditu neurri horiek.

5. Datu konfidentzietara iristea duten EINetako funtzionarioak nahiz gainerako langileak eta beste agintari nazionalak behartuta egongo dira konfidentziasun hori errespetatzera, are betetzen zituzten karguak utzi ondoren ere.

21. artikulua

Datu konfidentzialen transmisioa

1. EESko agintari baten datu konfidentzialak (EESko beste agintari batek bilduak), 4. artikuluan arautu bezala, transmititu ahal izango dira, betiere hori egitea beharrezkoa bada europar estatistikak eraginkortasunez garatu, egin eta zabaltzeko edo haien kalitatea handitzeko.

2. Datu konfidentzialak transmititu ahal izango dira datuak jaso dituen EESko agintari baten eta EBZSko kide baten artean, betiere hori egitea beharrezkoa bada europar estatistikak eraginkortasunez garatu, egin eta zabaltzeko edo haien kalitatea handitzeko, EESren eta EBZSren eskumenen esparruaren barruan, eta behar hori justifikatu bada.

3. Datuak biltzearen ardura duten agintariak esplizituki baimendu beharko dute lehendabizikoaren ondorengo edozein transmisio.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. Datu konfidentzialen transmisioa eragozteko, 1. eta 2. paragrafoen arabera, ezingo dira arrazoitzat aipatu estatistika-sekretuari buruzko arau nazionalak, baldin eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Tratatuako 251. artikuluko prozeduraren arabera erabakitako egintza batek datu horien transmisioa aurreikusten badu.

5. Artikulu honen arabera transmititutako datu konfidentzialak estatistika-helburuetarako baino ez dira erabiliko, eta soil-soilik beren lan-esparru espezifikoaren barruan estatistika-jardueretan aritzen direnek izango dute sarbidea datu horietara.

6. Erregelamendu honetan estatistika-sekretuari buruz aurreikusitako xedapenak EES barruan eta EESren eta EBZSren artean transmititutako datu konfidentzial guztiei aplikatuko zaizkie.

22. artikulua

Datu konfidentzialen babesa Batzordean (Eurostat)

1. Datu konfidentzialak, 2. paragrafoan adierazitako salbuespenetan izan ezik, Batzordeko (Eurostateko) funtzionarioek baino ezingo dituzte eskuratu beren lan-jarduera espezifikoaren esparruan.

2. Batzordeak (Eurostat), ezohiko kasu batzuetan, datu konfidentzialetara iristeko aukera eman ahal izango die bere gainerako agenteei eta Batzordearekin (Eurostat) lan-kontratua duten beste pertsona fisikoei, zein bere lan-jarduera espezifikoaren esparruan ari dela.

3. Datu konfidentzialetara sarbidea duten pertsonak estatistika-xedeetarako baino ez dituzte erabiliko. Agindu hori kargua utzi ondoren ere bete beharko dute.

23. artikulua

Datu konfidentzialetara sartzea zientzia-helburuekin

Batzordeak (Eurostat), EINek edo beste agintari nazionalak, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, datu konfidentzialetarako sarbidea eman ahal izango dute, baldin eta datu horiek estatistika-azterketak zientzia-helburuekin egiten dituzten ikertzaileei estatistika-unitateak zeharka identifikatzeko ez beste ezertarako aukera ematen badiete. Datuak Batzordeari (Eurostat) helarazi bazaizkio, datuak eman zituen EINaren edo beste agintari nazionalaren onespena beharko da.

Batzordeak sarrera-modalitateak, -arauak eta -baldintzak erabakiko ditu Erkidego osorako. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezakete) 27. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

24. artikulua

Administrazio-erregistroetara sartzea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Inkestatuen artean erantzun-karga murrizteko, EINEk, beste agintari nazionalak eta Batzordeak (Eurostat) dagozkien herri-administrazioen sistemetan dauden datuen administrazio-iturrietara sartzea izango dute, betiere datu horiek beharrezkoak badira europar estatistikak garatu, egin eta zabaltzeko.

Estatu kideak eta Batzordeak, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan eta egokia izanez gero, sarrera benetakoa izatea lortzeko modalitate praktikoak eta baldintzak erabakiko dituzte.

25. artikulua

Iturri publikoen datuak

Jendearen eskura legez jarritako iturrietatik lortutako datuak, legedi nazionalaren arabera jendearentzat eskuragarriak izaten jarraituz gero, ez dira konfidentzialtzat hartuko, haietan oinarrituta egindako estatistikak zabaltzearen ikuspuntutik.

26. artikulua

Estatistika-sekretuaren urraketa

Estatu kideak eta Batzordeak neurri egokiak hartuko dituzte estatistika-sekretuaren edozein urraketa saihestu eta zigortzeko.

VI. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

27. artikulua

Komite-prozedura

1. EESko Komiteak Batzordeari lagunduko dio.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

28. artikulua

Indargabetzea

1. 1101/2008 (EE, Euratom) Erregelamendua indargabetzen da.

223/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87/164, 2009/03/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Indargabetutako erregelamenduari egindako erreferentziak erregelamendu honi egindako erreferentziatzat joko dira.

Estatistika-sekretua dela eta (indargabetutako Erregelamenduak sortua) Komiteari egindako erreferentziak EESko Komiteari (Erregelamendu honetako 7. artikuluan sortua bera) egindako erreferentziatzat hartuko dira.

2. 322/97/EE Erregelamendua indargabetzen da.

Indargabetutako erregelamenduari egindako erreferentziak erregelamendu honi egindako erreferentziak direla ulertuko da.

3. 89/382/EEE (Euratom) Erabakia indargabetzen da.

Estatistika-programarako Komiteari egindako erreferentziak EESko Komiteari (Erregelamendu honetako 7. artikuluan sortua bera) egindako erreferentziatzat hartuko dira.

29. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

Presidentea

A. Vondra

[1] C 291 EO, 2007.12.5ekoa, 1. or.

[2] C 308 EO, 2008.12.3koa, 1. or.

[3] Europako Parlamentuaren txostena, 2008ko azaroaren 19koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko otsailaren 19koa.

[4] L 357 EO, 2002.12.31koa, 1. or.

223/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87/164, 2009/03/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

[5] L 248 EO, 2002.09.16koa, 1. or.

[6] L 1 EO, 1994.01.03koa, 3. or.

[7] L 90 EO, 2006.03.28koa, 2. or.

[8] L 318 EO, 1998.11.27koa, 8. or.

[9] L 332 EO, 2006.11.30ekoa, 21. or.

[10] C 364 EO, 2000.12.18koa, 1. or.

[11] L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or.

[12] L 8 EO, 2001.01.12koa, 1. or.

[13] L 41 EO, 2003.02.14koa, 26. or.

[14] L 264 EO, 2006.09.25ekoa, 13. or.

[15] L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

[16] L 304 EO, 2008.11.14koa, 70. or.

[17] L 52 EO, 1997.02.22koa, 1. or.

[18] L 181 EO, 1989.06.28koa, 47. or.

[19] L 133 EO, 2002.05.18koa, 7. or.

[20] L 156 EO, 2004.04.30ekoa, 1. or.; hau baliatuta zuzendutako bertsioa: 202 EO, 2004.06.07koa, 1. or.